

**ESKOLA ETA FAMILIAREN ARTEKO  
LANKIDETZA**

# 1.-ESPARRU OROKORRA: JARDUERA-ILDO HONEN DEFINIZIOA

## JUSTIFIKAZIOA

Zenbait azterketak eta ikerketak argi uzten dutenez, familiek ikastetxean parte hartzeak ikasleen eskola-eremuetan du eragina. Funtsezkoa da, familien eta ikastetxearen arteko harremana ikasleen garapen integralerako lagungarri izan dadin.

Senideek ikastetxean parte hartzea kasu guztietan inportantea den arren, parte hartze hori ezinbestekoa da gehienek kulturarekin zerikusirik ez duten, gizarte-egoera ahuletako edo gutxiengo etnikoetako familien kasuan, horrela jokatu ezean familia horiek ez baitute ikasleek ikastetxean ikasten dutena indartzeko aukerarik izango.

Praktikak esaten digunez, familia horiek ikastetxera hurbiltzeko eta haien parte-hartzea apur-apurka lortzeko, ikastetxeak hartu behar du iniziatiba: haien seme-alabekiko duen interesa transmititu behar die familia horiei ikastetxeak, ikastetxeari buruzko haien iritzia eskatu behar die, haien ustez ikastetxeak nolakoa izan beharko lukeen galdetu behar die, haien seme-alabak ikasketetan ondo joateko haiek ikastetxean parte hartzeak duen garrantziaz konbentzitu behar ditu, zertan gustatuko litzaiekeen parte hartzea galdetu behar die, erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko aukera eman behar die ... Hitz batean, interes eta afektua erakutsi behar ditu familia horiekiko ikastetxeak eta eman behar die ikastetxean era aktiboan parte hartzeko aukera.

## Programaren HELBURUAK JARDUERA-ILDO HONETAN

- a) Eskola, familia eta erkidegoaren arteko lankidetzaren garrantzia eta premia ulertzen eta baloratzen laguntzea, ikasleek, oro har, eta gehienekin zerikusirik ez duten kulturetakoek, talde etnikoetakoek eta gizarte-egoera ahuletakoek, bereziki, eskola-arrakasta lor dezaten.
- b) Senideek eta erkidegoko beste eragile batzuek parte hartzeko estrategia eta proposamen desberdinak ezagutzen laguntzea eta parte-hartze horrek ikastetxean dituen ondorio praktikoak ulertzea.
- c) Senideek eta erkidegoko beste eragile batzuek ikastetxean duten esku-artzea hobetzeko estrategia, praktika eta proposamenak sustatzea.

## JARDUERA-ILDO HAU DEFINITZEN DUTEN ALDERDIAK

1. IKASTETXEAREN ETA FAMILIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA.
2. FAMILIEN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA.
3. SENIDEEN PRESTAKUNTZA.

LANTZEKO FUNTSEZKO ALDERDIEN PROPOSAMENA. AGER  
DAITEZKEEN LORPENAREN MAILEN MAILAKETA EDOTA  
LORPENAREN ADIERAZLEAK.

ALDERDIA	LORPEN MAILAK
<p>IKASTETXEAREN ETA FAMILIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA</p>	<p><u>Ikasturte hasierako komunikazioa</u></p> <p>1.- Ikasturtearen hasieran, ikastetxeak familiei ikastetxearen funtzionamendu orokorrari eta kurtsoaren ezaugarriei buruzko informazioa ematen die. Ez dute saioaren ebaluazioarik egiten.</p> <p>2.- Ikasturtearen hasieran, ikastetxeak familiei ikastetxearen, ikasturtearen,... funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa ematen die, eta.</p> <p>3.- Ikasturtearen hasieran, ikastetxeak familiei, ikastetxearen, kurtsoaren ... funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa ematen die, eta idatziz ematen die informazioa, saioa alde aurretik ikasle eta senideekin prestatu ondoren (informazioa ematea nahi duten gaiak jasotzea, kezkatzen dituzten gaiak, hobetzeko ekarpenak, lehentasunezko ordutegiak, ...; ikasleen inplikazioa saioak prestatu eta aurrera eramateko orduan; haurtzaindegi-zerbitzua antolatzea; deialdiak familiei iritsi zaizkiela bermatzea, ...). Irakasleek beren ebaluazioa eta saioan jasotakoa aztertzen dituzte</p> <p>4.- Ikasturtearen hasieran, ikastetxeak familiei, ikastetxearen, kurtsoaren ... funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa ematen die, eta idatziz ematen die informazioa, saioa alde aurretik ikasle eta senideekin prestatu ondoren (informazioa ematea nahi duten gaiak jasotzea, kezkatzen dituzten gaiak, hobetzeko ekarpenak, lehentasunezko ordutegiak, ...; ikasleen inplikazioa saioak prestatu eta aurrera eramateko orduan; haurtzaindegi-zerbitzua antolatzea; deialdiak familiei iritsi zaizkiela bermatzea, ...). Talde misto batek saioaren balorazioa egiten du bertaratutako pertsona guztien ebaluazioak bilduz. Saioaren akta jasotzen du. familiaa guztiei bi dokumentu hauek bidaltzen dizkie eta ikastetxeko webgunean jartzen ditu.</p> <hr/> <p><u>Komunikazioa ikasturtean zehar</u></p> <p>1.- Ikasleekin zailtasunak (portaera txarra, absentismoa, emaitza txarrak ... ) badaude, deitzen zaie bakarrik familiei.</p> <p>2.- Ikasleekin zailtasunak badaude, deitzen dituzte irakasleek familiak, akordio bateratuetara iristeko (konpromisoak, alde guztien inplikazioa, kontratuak ... ).</p>

3.- Ikastetxeak erregularitasunez ematen die familiei informazioa– telefonoz, elkarrizketa pertsonalen bidez eta talde bileretan– eta, gainera, ematen die haien seme-alaben errendimendu akademikoari buruzko informazioa.

4.- Ikastetxeak erregularitasunez ematen die familiei informazioa– telefonoz, elkarrizketa pertsonalen bidez eta talde bileretan–, eta horrez gain, haien seme-alaben errendimendu akademikoari buruzko informazioa ematen die; horretarako espazio, denbora eta sistema alternatiboak (telefonoa, posta elektronikoa, weba, bitartekariak, ikasle zaharrak,...) bilatzen ditu ikastetxeak, familia guztiek izan dezaten informazioa jasotzeko aukera. Familia guztiekiko harremana bermatzeko modua erregistratuta du.

---

#### Gurasoak bileretara joatea

1.- Badira, deitzen zaienean, ikastetxera nekez joaten diren familiak.

2.- Familia gehienak deitzen zaienean joaten dira ikastetxera (bakarka, bilera orokorrak, gela mailako bilerak ... ).

3.- Familia gehienak ikastetxera joaten dira informazioa eskatzera; tutoreekin hitz egiteko hitzorduak eskatzen dituzte, eta telefonoz, posta elektronikoz, ... eskatzen dute informazioa.

4.- Ikastetxeak familiekiko harremanen kontrola eramaten du, denekin nolabaiteko harremana izan dutela ziurtatzeko.

---

#### Komunikazioa sustatzeko estrategiak

1.- Familiekiko bileretan, , ez dira familiak bultzatzen ikastetxera joatera, parte hartzera, proposamenak egitera.

2.- Familiekiko bileretan, banakako zein taldekakoetan, mezu positiboak ematen dira, familia guztiak ikastetxean egotearen garrantziari buruzkoak.

3.- Familiekiko komunikazioan ikasleen alderdi positiboei, familiak ikastetxean egoteari, parte hartzeari, galderak egiteari ... ematen zaie garrantzia.

4.- Senideentzako harrera-plan bat dago eta haiekiko harremana areagotu eta hobetzeko gakoak. Plana komunitate osoak ezagutzen du

---

#### Komunikazioa errazteko estrategiak

1.-Ikastetxeari buruzko oinarritzko informazioa dago, eta

	<p>eskatuz gero, familiek eskura dezakete.</p> <p>2.- Eskolari buruzko oinarriko informazioa hainbat hizkuntzatan jasota, ageriko lekuetan agertzen da eta familiek eskugarri dute. Komunikazioa errazteko beharrezkoa bada, itzultzaileak erabiltzen dira.</p> <p>3.- Komunikatzeko sistemak hobetzeko erari buruz galdetzen zaie sistematikoki familiei</p> <p>4.- Erreferentzia diren pertsonen laguntza du ikastetxeak (erakundeetako pertsonak, gako diren familiak, prestigioa duten edo konfiantzakoak diren erkidegoko pertsonak, ... ), eta pertsona horiek laguntza ematen dute senideengana hurbiltzeko eta haiekin komunikatzeko prozesuan.</p>
<p>1. alderdia FAMILIEN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA</p>	<p><u>Familiaren lankidetzak eskola-jardueretan</u></p> <p>1.- Beren seme-alaben egoeraz interesatzen dira familiak, baina gutxi parte hartzen du ikastetxearen dinamikan.</p> <p>2.- Familia ugari parte hartzen du ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan (jaiak, bilerak, hitzaldiak ... ).</p> <p>3.- Zenbait familiak parte hartzen du ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan ( talde elkarreragileetan parte hartuz, tailerrak dinamizatuz, jardueren antolaketan lagunduz,...)</p> <p>4.- Familia gehienek hartzen dute ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan parte (talde elkarreragileetan parte hartuz, tailerrak dinamizatuz, jardueren antolaketan lagunduz, solasaldietan parte hartuz, ... ).</p> <hr/> <p><u>Familien parte-hartzea ikastetxearen antolaketa-egituretan</u></p> <p>1.- Familiak ikastetxearen partaidetza-egituretan daude (OOG), baina haien partaidetza itxura hutsekoa da.</p> <p>2.- Gelako delegatuen egitura bat dago. Bilerak egiten ditu; irakasleek eskatzen diotenean, haiekin parte hartzen du; familiei informazioa ematen die; ...</p> <p>3.- Familien eta irakasleen batzorde bat dago, ikastetxearen eta familien arteko harremanak eta esku-hartzea antolatu, sustatu eta dinamizatzen dituen, eta prozesu horren jarraipena egiten duena.</p> <p>4.- Gai desberdinak jorratzen dituzten batzorde mistoak daude. Familiek egitura erabakigarrietan parte hartzen dute (OOG,</p>

	<p>Batzorde mistoak, Elkarbizitzaren Behatokia, Hezkidetzaren Batzordea, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea ... ).</p> <hr/> <p><u>Familien lankidetzaren sustatzeko estrategiak</u></p> <p>1.- Ikastetxeak komunitateko beste eragile batzuekin batera– Udala, guraso elkarteak ...– familiak komunitatean sartzen laguntzen dute.</p> <p>2.- Kultur aniztasuna ikastetxearen bizitzan dago eta aberastasun gisa planteatzen da.</p> <p>3.- Badago konpromiso bat irakasleen artan, eta irakasleen eta familien artean, familien parte-hartzearen kontrako diskurtsoak, itsaropen onak izatearen kontrako diskurtsoak eta talde kultural edo etniko batzuekiko mesfidantzak antzeman eta ezabatzeke.</p> <p>4.- Era sistematikoan aurkezten zaizkio eskola-komunitateari familien lankidetzak ikastetxean, indartzeko eta lankidetzaren handiagotzeko.</p> <p>5.- Prestakuntza-jardueretan, ikastetxean dauden talde kultural edo etnikoetako pertsonak hartzen dira kontuan, haien artean harremanak izan ditzaten, elkarrekiko ezagutza areagotu dadin, haien artean trukea egon dadin eta guztiak aberas daitezten</p>
<p>2. ALDERDIA</p> <p>FAMILIEN PRESTAKUNTZA</p>	<p><u>Familien prestakuntzaren jardueren antolaketa</u></p> <p>1.- Ikastetxeak familiei prestakuntza emateko saiak antolatzen dituzte.</p> <p>2.- Familiei prestakuntza emateko prozesuan parte-hartzea areagotzeko zenbait estrategia erabiltzen dituzte ikastetxeak (interesa eta premiak jasotzea, askotariko deialdiak, ordutegi egokituak, erreferentziako pertsonen bidez egindako deialdiak ... ).</p> <p>3.- Irakasleek eta familiek prestakuntza-programa bat adosten dute, familiei, esan dutenaren arabera, interesatzen zaizkien gaiak buruzkoa.</p> <p>4.- Familien prestakuntza ikastetxea, oro har, hobetzeko alderdiren bati dago lotuta, eta bat dator irakasle eta ikasleak prestakuntzarako egin diren proposamen batzuekin</p> <hr/> <p><u>Familien parte-hartzea ikastetxearen prestakuntzan</u></p> <p>1.- Familia gutxi batzuk parte hartzen dute ikastetxearen prestakuntzan, (% 10tik behera).</p>

	<p>2.- Familia batzuek parte hartzen dute ikastetxearen prestakuntza-planean, ( % 11 eta % 20 artean)</p> <p>3.- Familia dezentek parte hartzen dute ikastetxearen prestakuntza-planean, (% 20 eta % 50 artean)</p> <p>4.- Familia ugariak parte hartzen dute ikastetxearen prestakuntza-planean (% 50etik gora).</p>
--	---

## 2.-IKASTETXEARI LAGUNTZEKO TRESNAK

### 2.1.- PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK:

#### PRINTZIPIOAK

Proposamen metodologikoak aurrera eramateko, familien eta ikastetxeen arteko harreman desberdinei buruzko oinarrizko klabe batzuk ezagutu behar dira ezinbestean, egindako ikerketen arabera. Talde minoritarioek, sarritan, ez dute eskolaren jardueretan parte hartzen baina inplikazio falta honek ez du haien seme-alaben hezkuntzan interesik ez dutela esan nahi. Ikerketa batzuek argi uzten dutenez, ikastetxean eroso sentitzen ez direlako ez dute familia horiek parte hartzen; eskola-instituzioaren funtzionamendua ezagutzen ez dutelako batzuetan, beste batzuetan haien gutxiagotasun-sentimenduak ez dituzte eskolara hurbiltzeko lagungarri, ondo hartuak ez izanaren pertzepzioa dute beste batzuetan eta horrek eskolara hurbiltzea eragozten die ... Ildo horretan bertan ikerketa desberdinen berrikuspen bat egiten du Vilak eta, ondorio gisa, hau esaten du: familiek, beren jatorri sozial eta profesionalaren arabera harreman mota desberdinak dituzte eskolarekin . Erdi /goi mailakoek harreman erosoak dituzte, hezkuntza-proiektuekin bat datoz eta, arazoak badituzte, eskola-testuinguruan eragiteko baliabideak ere badituzte. Behe mailakoak gutxiagotasun-egoeran daude instituzioari begira: informazio gutxiago dute, eskolarekin komunikatzeko bide gutxiago ezagutzen dituzte eta, eskola-testuinguruan eragina izateko aukerari begira, haien autoestimua txikia da. Familia horiek dute eskolan eta irakasleen lanean interesa baina ez dira sentitzen haien seme-alaben hezkuntzarako ekarpen garrantzitsuak egiteko gai; ondorioz, ez dira klase-bileretara edo antzeko ekitaldietara joaten. Familia ijito askok ikastetxeekin dituzten harremanak klabe horien arabera interpretatu behar dira.

#### ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK, SELEKZIONATUTAKO FUNTSEZKO LAN-ALDERDI BAKOITZARI BURUZKOAK.

##### Sarrera:

INCLUD-ED ikerketa europarraren emaitzak eta erkidegoak ikastetxeetan esku hartzeko moduez egiten duen sailkapena ditu proposamen honek erreferente.

Aipatutako ikerketak 5 eratan sailkatzen ditu familiek eta gizarte-eragileek ikastetxean aritzeko jarduera desberdinak:

- Esku-hartze informatiboan ikastetxean aurrera eramaten diren eta haiek erabakitzeko gaitasunik ez duten jarduerari buruzko informazioa ematen zaie familiei.
- Kontsultako esku-hartzean ikastetxeetako estatutu-organoetako kide dira familiak. Esku-hartze hau kontsultako rol batera mugatzen da, ikasleen ikaskuntzaren alderdiei buruzko iritzia emateko espazio gutxirekin.
- Esku-hartze erabakitzailean erkidegoko kideek hartzen dute erabakitze-organoetan, edo familiek erabakitzeko prozesuetan parte har dezaten sortutako organo berrietan, parte. Espazio horietan familiek, erkidegoko kideek eta irakasleek funtsezko erabakiak batera hartzen dituzte. Parte-hartze



horri esker, irakaskuntza kalitatekoa dela eta ikasle guztiekin itxaropen handiak izatea eskola-egitekoaren zatia dela errazago segurta dezake eskolak.

- Esku-hartze ebaluatzailean, eskola ebaluatzeko prozesuetan edota ikasleak ebaluatzeko prozesuetan inplikatzeko dira familiak.
- Hezkuntzako esku-hartzean familiek eta erkidegoek bi modutan hartzen dute hezkuntza-jardueretan parte: haurren ikaskuntzan eta beren ikaskuntzan (familien prestakuntza). Erkidegoko kideek ikasleen ikaskuntza-jardueretan lagunduz hartzen badute eskolan parte, haurren ikaskuntzari laguntzeko giza baliabideak irabazten ditu eskolak. Halaber, heldu horiek erreferente positibo bihurtzen dira talde sozial eta kultural desberdinetako ikasleentzat.

Beren ikaskuntzari dagokionez, familiek beroriek proposatzen dituzten prestakuntza-jardueretan parte hartzen badituzte, ikasleei laguntzeko gaitasuna areagotzen dute.

Familiek eta erkidegoak esku hartzeko bost moduetatik, azken hirurak guztien eskola-arrakasta bermatzeko egokienak direla uste da. Horregatik, orientabide metodologikoen familien lankidetzara ildo horretan sustatzera bideratuta egon behar dute.

### 1. IKASTETXEAREN ETA FAMILIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA.

- Familiek ikastetxean parte hartzeak duen garrantziaz klaustroa sentsibilizatzea.
- Ikastetxean dagoen egoera aztertu eta, familiekin komunikatzeko sistemei begira, puntu indartsu eta ahulak konkretatzea.
- Ikastetxearen eta familia guztien arteko komunikazioa hobetze aldera, familien informazioa jasotzea.
  - Familiei inkestak egitea.
  - Ikasleak eraman edo jasotzen dituztenean, familiekin elkarriketak izatea.
  - Familia bereziak antzeman eta beraiekin biltzea.
  - Gai hori familiekin izaten diren bilera guztietan planteatzea (amestea proposatzea, pos-its-ak eta beste dinamika batzuk erabiltzea).
- Jai eta ospakizunak: ematen dute familiek eta irakasleek eskola-ordutegitik at elkar ikusteko aukera.
- Familiekin komunikatzeko bide onenak zeintzuk diren ikasleei tutoretza-bileretan edo gela-batzarretan planteatzea.
- Familiak ikastetxera gehiago joan daitezten eta parte har dezaten estrategiak eskola-erkidegoko kide guztien artean adostea.
  - Prozesua dinamizatzeke batzorde misto bat antolatzea.
  - Akordioak adostasun maila handiagoarekin hartzeko dinamika batzuk antolatzea.
- Familiak gela-bileretara joan ahal izateko, haurtzaindegi-zerbitzu bat antolatzea.
- Familien eta hezitzaileen arteko bilera informalak egitea erabakitzen da: bazkaldu ondoren elkartzen dira, kafea hartzeko eta hitz egiteko.
- Klaustroan alderdi orokorrak adostea, familiekin komunikatzeko orduan:
  - Eskola-erkidegoko kide guztien aldetik ahozko hizkuntza eta ahozkoa ez dena- keinuak, begiradak, ... - zaintzea, familiei harrera egiteko.
  - Familiei harrera egiteko espazio egokiak erabiltzea.
  - Bilerak egiteko ordutegiak malgutzatzea.
  - Familiekin komunikazioa segurtatzeko, bitarteko desberdinak- telefonoa, gutunak, oroigarriak ... - erabiltzea.

- Ikastetxean erabiltzen diren hizkuntza guztiak erabiltzea familientzako informazio-orriak egiteko orduan.
- Familiestikiko komunikazioa hobetzeko, estrategia desberdinak erabiliko direla adostea.
- Bileretarako deialdiak: orri erakargarriak, erraz irakurtzeko modukoak, informazio laburrarekin. Jarduera, tokia eta ordua adieraziko dira.
- Oroigarria: ordua, data eta jarduera gogorarazten dituen orri txikia. Proposatutako bileraren egun berean edo aurrekoan.
- Informazio-liburuxka argi eta erakargarriak egitea, eskola-jarduerei eta erkidegoan dauden hezkuntza- eta osasun-baliabideei (liburutegia, ludoteka, tailerrak, eskolaz kanpoko jarduerak ... ) buruzkoak.
- Muralak: paper jarraikoa. Han jarduerak iragartzen dira, lanak egiten dira, ikasleen marrazkiak, argazkiak, ... jartzen dira.
- Hezkuntza-eskuliburu erraz eta ikusteko modukoak egitea, semearen /alabaren hezkuntzari familiatik bertatik laguntzeko.
- Gela bakoitzeko ikasleen inplikazioa beren familientzako materialak diseinatu eta egiteko prozesuan (deialdiak, liburuxkak ... ).
- Ikaslearen portfolioa: ikasleak, ebaluazio bakoitzaren ondoren, beren familiekin joango dira bilerara eta gurasoei aurkeztuko diete egindako lanen portfolioa.
- Eskola-agendaren erabilpena.
- Informazioa trukatzeko Internet (weba, posta, foroak ... ) erabiltzea.
- Ikasleek etxean egin behar dituzten gelako lanetan senideak inplikatzeko. Adibidez, familiekoei egingo dizkieten galdekizunen bidez, gelan lantzen ari diren gai bati buruzko informazioa jasotzeko.

## 2. FAMILIEN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA

- Guraso elkarteetan parte hartzea, ikastetxearekin lankidetzan aritzeko, tailerrak antolatzeko, beste guraso elkarte batzuekin koordinatzeko ...
- Erabakitzaileak diren ikastetxeko batzordeetan (elkarbizitza, hezkidetzak, ebaluazioa, OOG ... ) parte hartzea.
- Hezkuntza-lanetan lankidetzan aritzea: gai desberdinak aurkeztea, ipuinak kontatzea, tradizioak, ohiturak ... azaltzea.
- Ikasle batzuen tutoretza.
- Talde interaktiboetan edo gelako beste jarduera batzuetan parte hartzea.
- Eskolaz kanpoko irteeretan laguntzea.
- Lankidetzan aritzea eskolak eta erkidegoak egiten dituzten jarduerak diseinatu eta ebaluatzen prozesuan.

## 3. FAMILIEN PRESTAKUNTZA

Ikerketa zientifikokoaren arabera, familiei haien maila akademikoa hobetzen laguntzeak ikasleentzako eskola-eraketan eragin zuzena du. Familien parte-hartzea ziurtatzeko, haien interesak ezagutu behar dira eta prozesuan inplikatu behar zaizkie. Zentzu horretan, proposamen hauek egiten dira:

- Familien interes eta premiei buruzko informazioa jasotzea.  
(lehen aipatutako bilera eta estrategiak aprobetxatzea)

- Ikastetxearen prestakuntza-plana diseinatu eta ebaluatzeko prozesuan familiak lankidetzan ariko direla segurtatzea (batzorde misto bat antolatzea).
- Familiak tailer mota desberdinetan parte hartzea (eskola-erkidegoko gainontzeko sektoreekin batera batzuetan, besteetan ez).
- Mota desberdinetako tertulia dialogikoak (literarioak, musikalak ... ) egitea.
- Hizkuntzetako eta Informazio eta Komunikazio Teknologietako ikastaroetan parte hartzea.

## 2.2.- AUKERATUTAKO JARDUERA-ILDOAN EDO ALDERDIAN LANA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK:

Irizpide orokor gisa, hobekuntza-planean jarduera-ildoak eta aurrera eraman beharreko jarduerak txertatzea, dagoeneko txertatu ez badira, komeniko litzateke, baita plan horren jarduera-eskemari lotzea ere.

Adibideak:

**Landu beharreko arloa:** ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa.

**Eginkizuna:** ikasturtearen hasierako gela mailako bilera familiekin prestatzea.

**Helburuak:**

- Familien asistentzia hobetzea.
- Familiak ikastetxean duten esku-hartzea sustatzea.

**Adierazleak:**

- Aurreko ikasturteekin alderatuta, familiak gehiago joaten dira ikastetxera.
- Irakasleek, ikasleek eta familiak era positiboan baloratu dute bilera prestatu eta garatzeko prozesua.
- Gelako delegatu bat aukeratu da.
- Hurrengo bilerarako data bat finkatu da.

**Arduradunak:** tutoreak eta aholkularia /orientatzailea.

**Denboralizazioa:** ikasturtearen hasiera.

- Irailean prestatzen da.
- 2 tutoretza-saio, materialak diseinatzeko eta bilera prestatzeko.
- Hizkuntzen arloko 2 saio, testuak egin eta argitara emateko.
- Irailaren bukaeran /urriaren hasieran egitea.

**Baliabideak:**

- Ikasleek gelan egindako bilerara joateko gonbidapena.
- Bilera ikastetxeko hizkuntzetan deitzea. Deialdia bitarteko desberdinen bidez egingo da.
- Ikastetxeari buruzko informazio-liburuxka, eskola-erkidegoak batera diseinatu eta egina.
- Bilera baloratzeko plantila.

**Ebaluazioa:**

- Bilera baloratzeko galdekizunak.
- Parte-hartzearen indizea.

## 2.3.- PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENA

**Irakasleentzat:**

- Gizarte-eragileen hezkuntza eta parte-hartzea: erkidegoa arrakasta akademikorako lagungarri izatea.
- Familiek eta erkidegoko beste kide batzuek ikastetxean parte hartzeko zailtasun eta abantailak.
- Ikastetxean dagoeneko egiten duguna hobetuko dugu. Familiek eta beste eragile batzuek parte hartzeko erak.
- Parte-hartzea sustatzeko beste proposamen batzuk.
- Hobekuntzak planifikatzen ditugu.

**(Eranskina ikusi).**

## 4.- BESTE OHAR /LAGUNTZA BATZUK.

Horretarako, material hauek erabiltzea gomendatzen dugu:

**LAN-AGIRIA:**

IFIIE. Estudios Crede nº 9. Actuaciones de éxito en las escuelas europeas. (gaineratzen da)

**IRAKURKETA OSAGARRIAK(gaineratzen dira):**

- Relación con las familias gitanas y su participación en la vida escolar (gaineratzen da)
- Participación y formación de familiares en las Comunidades de Aprendizaje (gaineratzen da)
- Escuela, familia y comunidad (en módulo 3 Guía INTERPROJET)
- Cuestionario Golden 5 (gaineratzen da)

**TESTU INTERESAGARRIAK:**

- Guía INTER . Una guía práctica para aplicar la educación intercultural en la escuela. INTERPROJECT (UNED-MADRID) - Autoría Compartida (2002): Comunidades de aprendizaje en el País Vasco, Bilbo: Publicaciones del Gobierno Vasco (se incluye en la carpeta dokumentu orokorrak)
- Vila Ignasi (1998) Familia, escuela y comunidad. Barcelona: ICE Universitat de Barcelona-Horsori
- Epstein, Joyce L. and Salinas, Karen Clark (2004) Partering with Families and Communities, in Educational Leadership vol. 61, n. 8. Schools and Learning Communities, Pages 12-18

- Ministerio de Educación Cultura y Deporte. (2012). Educación inclusiva. Iguales en la diversidad. Participación de la familia.

### 3.- ERANSKINAK

---

